

Erf.: OLHUIko 2017-2018ko eskaintza
Espediente zk.: 17/

Karmele Muñoa Arrigain andereak, Bermeoko Udaleko behin-behineko idazkariak, jarraian zehazten dan gaiari buruz egiten dot honako

TXOSTENA

Planteatutako gaia

OLHUIko 2017-2018 ikasturterako eskaintza onartzea.

Nork eskatu dauen txostena

Ofizioz.

Argudio juridikoak

a) Aurrekariak

Bakarra: Kultura batzordea, OLHUIko 2017-2018 ikasturterako eskaintza proposamenaren aldeko irizpena emon dau.

b) Oinarri juridikoak

Bakarra: Toki Erregimenaren oinarri Legeak, bere 22. Artikuluan honakoa xedatzen dau: "2. Corresponden, en todo caso, al Pleno municipal en los Ayuntamientos, y a la Asamblea vecinal en el régimen de Concejo Abierto, las siguientes atribuciones:
(...) **g)** La aceptación de la delegación de competencias hecha por otras Administraciones públicas."

Kasu honetan, ikasturteko eskaintza onartzerakoan, zeharka bada be, delegazioagaz jarraitzearen aldeko erabagia hartzen dan heinean, eskumena Osoko Bilkureari jagokola ulertu leike.

Informatzen doguna, legean oinarritutako beste edozein txostenen kalte barik.

Bermeon, 2017ko maiatzaren 26an

Karmele Muñoa Arrigain
Behin-behineko idazkaria